



# ZERAINGO HERRI BATZARRA

Txosten honek 2016ko uztailaren 21ean egindako Herri Batzarrean Udalak emandako informazioa jasotzen du.



<b>ZERAINGO HERRI BATZARRA.....</b>	<b>1</b>
<b><u>1. Sarrera.....</u></b>	<b>2</b>
<b><u>2. Informazioa.....</u></b>	<b>2</b>
<b>2.1 Lehen urtearen balorazioa .....</b>	<b>2</b>
<b>2.2 Udal kudeaketa .....</b>	<b>3</b>
<b>2.2.1 HAUR-ESKOLAREN EGOERA.....</b>	<b>4</b>
<b>2.3 Lur sailen mugak eguneratzeko proiektua.....</b>	<b>4</b>



## 1. Sarrera

- Laugarren herri batzarra izan da, urteko hirugarrena.
- Aurreko batzarretan aipatu bezala, asmoa da urtean zehar 4 batzar egitea gutxienez. Udalaren informazioa emango da, kontuak barne. Lehen urtea bete dugunez, hasteko, balorazio laburra egingo dugu eta kudeaketaren hainbat gaien berri emango dugu. Gainera, bilera hau baliatuko dugu **Lur sailen mugak eguneratzeko proiektuari** hasiera emateko.
- 2016ko herri batzarrak: urtarrilak 21, apirilak 24, uztailak 21, urriak 16.

## 2. Informazioa

### **2.1 Lehen urtearen balorazioa**

- Programa: prestatu genuen herri programa gure lan tresna da. Bertan jasota dauden ekintza asko egin ditugu eta beste asko bideratuta ditugu bigarren urtean egiteko, adibidez, udalak berdintasunez jokatzeko herritar guztiekin, udaleko diru kontuak gardentasunez kudeatu, proiektu garrantzitsuen inguruko informazioa eman, batzorde bidez funtzionatu, herri batzarrak egin, herriko elkarteekin lankidetzak, eskola eta haur-eskola babestu, herri ekintzak, kultur astea, festak, azoka eta abar antolatu.

Gainera, auzoetako beharrei erantzuten saiatzen gara eta dagoeneko plazako komun publikoak egin dira. Turismo mailan Mutiloa eta Ormaiztegiarekin koordinatu eta lankidetzak bultzatzen dugu. Goi tentsioko plataformaren lana eta Gure esku dinamika babesten ditugu.



- Udaletik gain dauden erakundeetan ordezkariak lanak egin ditugu: Partzoneria, Sasieta, Ur partzuergoa, Goieki, Goimen, Tobera, Haur-eskolak Partzuergoa, Eudel...
- Lehen urteko balorazioa osatzeko 16 urtetik gorako guztiei balorazio-orria bidaliko dizuegu irailean.

## 2.2 Udal kudeaketa

- Aurrekontua: lehen 6 hilabeteak pasatu direnean exekuzio maila nahiko egokia izan da. Saiatzen ari gara daukagun baliabideen arabera funtzionatzen. Aurrekontua oso juxtua dugunez, diru laguntzen menpe gaude. Orain arteko desbideraketak: Zeraintzen S.A. eta hezkuntza.
- Zeraintzen ixteko akordioa hartu dugu udalbatzan. 2/ 3 hilabeteko prozesua izango da eta langileei proposamenak egin dizkiegu.
- Hondakinen bilketa: auzo nagusietan 2 gune berri jarri dira.
- Zerain-Segura oinezkoen bidea. Laster hasteko asmoa dago.





- Plazan egokitzapenak: lehenengoak abuztuan hasiko dira.
- Kultur Etxean galdara berria jarri da.

### **2.2.1 HAUR-ESKOLAREN EGOERA**

Gaur egunean Zerainen, 6 haur daude haur-eskola erabiltzeko adinean eta 2016. urtea bukatzerako beste 2 haur gehiago jaioko dira, beraz denera 8 haur egongo lirateke haur-eskolako adinean.

Erabilera bultzatzeko, udaletik hainbat saiakera egin dira, hala nola; gaur egunean erabiltzaile diren gurasoekin eta erabiltzaile izan daitezkeen gurasoekin bilera batzuk egin dira bakoitzaren beharrak zeintzuk diren zehazteko, eta aldi berean eskualde mailako gonbidapena ere egin da Zeraingo haur eskola txikiaren onurak adieraziz eta eskualdeko jendea gonbidatuz. Baita ere udalak, aurrekontuaren zati bat, haur-eskolako erabiltzaileei laguntzeko beka moduan jartzea pentsatu du, 2015-2016ko ikasturtean haur-eskolaren ordutegia zabaltzeko langile bat kontratatzeko egin duen moduan.

Guzti hau landuta, aipatu diren haur horien familien gehiengoak ez du haur-eskolaren erabileraren beharrik eta erabileraren beharra duenak Mutiloako haur-eskolara eramaten dute, ondorioz Zeraingo haur-eskola, 2016ko irailean ez da irekiko, behin behineko itxiera izango da, ez da behinbetiko itxiera, haur edo familia batek haur-eskolaren beharra duen momentuan bere atea irekitzeko aukera dugu, beraz egoera hori gertatzen denean, udalarekin jarri harremanetan.

### **2.3 Lur sailen mugak eguneratzeko proiektua**

Urtebeteko proiektua izango da: 2016ko uztailetik 2017ko ekaina bitarte iraungo du. Proiektuan parte hartzea borondatezkoa izango da eta Udalak Goimenen laguntzarekin burutatu proiektua da lurjabeentzat dohakoia izango dena.

Helburuak:



- Mugetan dauden okerrak zuzentzea
- Mugak finkatzea GPS bidez
- Partzelei izena eta zenbakia ipintzea jabetza zehaztuz
- Katrastoa eguneratzea

Proiektuaren arduraduna: Joxe Mari Apaolaza

Arduradun teknikoa: Baso elkarteko Jabier

Proiektuaren lantaldea: bi arduradunak eta nahi duten herritarrak.

Lur jabeari eskatuko zaiona:

- Mugak garbitzea.
- Mugakide guztien adostasunarekin muga bakoitzeko mugarriak garbi finkatuta uztea.

Lur jabeari eskainiko zaiona:

- Teknikari baten laguntza.
- GPS bidez mugak behin betiko finkatzea eta lur sailen planoak egitea mugarri bakoitzaren koordenada zenbakiekin. (txostena)
- Katastroko partzela planoan lur sailak eta mugak zuzen jartzeko laguntza